

LANKIDETZA-HITZARMENA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO-EUSKAL  
HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA BAKEA ETA DUINTASUNA  
ERAKUNDEAREN ARTEAN, LANTINOAMERIKAN DIHARDUTEN  
MULTINACIONALEN BEHATOKIA GARATZEKO

Leioan, 2013eko apirilaren 17an.

BILDUTA

Alde batetik, **IÑAKI GOIRIZELAIA ORDORIKA** jn., Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU, aurrerantzean) errektorea, erakunde horren ordezkari gisa eta abenduaren 23ko 322/2003 Dekretuaren bidez (EHAA, 2004/01/12) onartutako UPV/EHUko Estatutuek emandako eskudunten arabera, Q-4818001B IFKrekin eta egoitza Leioan duela.

Bestetik, **EUGENIO PASCUAL CORUÑA** jn., Bakea eta Duintasuna erakundearen izenean eta haren ordezkari gisa, erakunde horren helbidea Bilboko Zabalbide kaleko 19an (solairuartea B) egonik, G-81375479 IFKrekin, eta ekitaldi honetarako behar besteko ahalmenarekin.

Zuzentzen dituzten erakundeen izenean eta haien ordezkari gisa parte hartzen dute, beren karguek ematen dizkienetan ahalekin jarduten dute eta Hitzarmen hau eman eta izenpetzeko gaitasuna eta legezkotasuna aitortzen dizkiote elkarri.

ADIERAZI DUTE

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU, aurrerantzean) sentsibilizatuta eta konprometituta dago goi-mailako irakaskuntzako zerbitzu publikoa eskaintzen duen jardun-inguruneko gizarte-, ekonomia- eta kultura-beharrei erantzuteko betebeharrekin, eta jakinarazi nahi du asmoa duela ekintza espezifikoak abiarazteko prestakuntzaren eta informazioaren arloetan, gure errealtate ekonomikoan eta sozialean eragina duten fenomeno globalak aztertzeko.

Beren aldetik, Bakea eta Duintasuna erakunde eta Latinoamerikan ari diren Multinacionalem Behatokia (OMAL, aurrerantzean), aintzat harturik gizartearekin duten konpromisoa, euskal multinacionalem jarduerak Latinoamerikan duen eragina aztertzen ari dira, aldai nagusien arabera, eta bereziki erreparatzan diete hezkuntza-sistemak sistema produktiboari dagokionez dituen sarrera- eta erlazio-fluxuen ezaugarriei. Behin horiek azertuta, helburua da proposamenak egitea ekintza espezifikoak definitu eta egokitzea, ikerkuntza, sentsibilizazioa, prestakuntza eta kontzientzia sustatzeko Euskal Herriko eta Latinoamerikako gizarteetan, estatuko multinacionalem jarduerak Latinoamerikako herrialdeen garapen ekonomiko eta sozialean duen eraginari buruz, jakiteko zein aukera eta mehatxu eragiten dituen horrek Milurtekoko Garapen Helburuak betetzeko kontinente horretan.

Globalizazio-prozesuek sistema ekonomikoetan eragindako aldaketa sakonak, horrek sortutako ziurgabetasuna ekonomien bilakaera eta joeretan, lan-prozesuetan eta enpleguen edukian izandako aldaketak, euskal enpresen arteko erlazio gero eta estuagoa, inbertsioen jomuga diren herrialdeetako gizarteengokoa tokiko bizitza-moduak eta bizi-baldintzak, enpresa-kudeaketako ereduetan eginiko aldaketak, informazioaren eta komunikazioaren teknologien inpaktua,

ezagutzaren gizartearen eklosioa... horiek guztiak duda-mudako testuinguru batean ekarpen kontziente bat behar duten aldagaik dira, eta ezinbesteko da horretarako arreta handiz erreparatzea haien seinaleei. Une honetan, gainera, are beharrezkoagoak dira azterlana eta ikerkuntza, Europa osoan finantza- eta ekonomia-krisiari aurre egiteko martxan jartzen ari diren politika ekonomiko eta sozialak direla-eta. Unibertsitateko agintariekin ikuspegi egoki bat behar dute gizarte-errealtateari buruz, curriculum-edukiak berritzeko, beren informazio-zerbitzuak elikatzeko, titulu propioak diseinatzeko edo irizpide sendoagoz parte hartzea gizarte zibilaren eta politikarien arteko elkarritzketan.

Lortutako informazioak oso erabilgarriak izan daitezke ezagutzak eta ikuspuntuak aberasteko, gure lurraldeko enpresa multinazionalen politikek Hegoaldeko herrialdeen bizi-baldintzetan dituzten ondorioei buruz. Zeregin hori, gainera, globalizazioak Ipar eta Hegoaldeko herrialdeetako lan-eskubideetan duen inpaktuaren analisian txertatzen da, eta errealtitate horien arteko hartu-emanetan. Horren harira, behar-beharrezko da aztertzea ere herrialde aurreratuetaiko praktika protekzionistek garapenean dituzten ondorioak, "gizarte klausulen" ondorioak, deslokalizazioaren eraginak, gizarte-dumpinga edo lan-emigrazioa, besteak beste. Horrekin batera, aztertu egin behar da ere emakumearen egoera eta alternatibak, aurre egiteko lan-merkatuan pairatzen duten bazterkeriari, eta eragile soziolaboralek nazioarteko ordena berrian duten jokamoldea.

Informazio hori guztia oso baliagarria izan daiteke analisi- eta proposamen-ahalmena hobetzeko hainbat eragilerengen:

- Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako (eta, hortaz, UPV/EHUko beste ikastegietako) langileak eta ikasleak.
- UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoari loturiko ikasleak.
- Garapenerako Lankidetzarako Gobernuz kanpoko erakundeak.
- Garapena eta Lankidetzari buruzko Ikerketa Institituak (Hegoa).
- Sindikatuak.

Hori horrela, Bakea eta Duintasuna erakundeak 8 urte baino gehiago egin ditu jada Latinoamerikan ari diren Multinazionalen Behatokia (OMAL) garatzen, aipatutako gaiekin lotutako estatistika, erregistro eta salaketa publikoei buruzko informazioa kudeatzen.

UPV/EHUk, Bakea eta Duintasuna erakundeak eta OMALek lankidetza-hitzarmen bat izenpetu zuten 2008ko azaroaren 14an, luzatuz joan dena, hurrenez hurren, 2010eko martxoaren 26an, 2011ko otsailaren 25ean eta 2012ko otsailaren 23an. Indarraldia 2012ko abenduaren 31n amaitzen duen hitzarmen horrek oso emaitza onak eman ditu, Jarduera Memorian egiazta daitekeen moduan. Hori horrela izanik, komenigarria litzateke guztiz elkarlan horri eustea, orainean nahiz etorkizun hurbilean, UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako Batzarrak 2012ko abenduaren 19an aho batez hartutako erabakian adierazten den moduan. Horri dagokionez, aipatzeko da oso emaitza onak izan dituela lehendik ere UPV/EHUREN (Lan Harremanen Unibertsitate Eskola) eta Bakea eta Duintasuna erakundearen arteko lankidetza-harremanak, nola behaketa-tresnen diseinuan hala prestakuntza espezializatuko jardueren garapenean.

Testuinguru horretan, bai UPV/EHUk bai Bakea eta Duintasuna erakundeak ingurunea behatzeko tresna baten garapenean sakontzeko ideia partekatzen dute. Zehazki, elkarrekin parte hartzeko interesa dute, informazioa lortzeko tresna espezializatuen zuzendaritzan, kudeaketan eta mantendimenduan, eta OMAL behatokia izan daiteke tresna horietako bat. Behatoki hori ezagutza sortzeko entitatetzet hartu behar da, irizpide sendoagoak edukitzeko erabakiak hartzeko orduan.



Hitzarmen honen bidez, hortaz, bi aldeek lankidetzaren emaitzak ebaluatzeko fase bat jartzen dute martxan, UPV/EHUnen barnean informazio-egitura iraunkor bat edukitzea komeni den erabakitzera alderatzen.

## KLAUSULAK

### LEHENENGOA.- Xedea

Hitzarmen honen xede nagusia da akordio bat ezartzea aipatu diren aldeen artean, OMAL behatokia garatzeko.

### BIGARRENA.- Garatu beharreko jarduerak

Helburu horrek honako jarduera hauek eskatzen ditu:

- Webgune bat elikatzea egunero, espanyiar estatuko enpresa transnazionalek Latinoamerikan duten jarduerari buruzko informazio eta adierazle eguneratuekin.*

#### Deskribapena:

- Hosting-a kontratatzea eta web orria egunero mantentzea: [www.omal.info](http://www.omal.info).
- Datu-basearen mantenimendua, proiektuari lotutako pertsona fisikoentzako, erakundeen eta gizarte-erakundeen sarearekin. Web orria mantentzeak edukiak eguneratzea eskatzen du: hasierako orria, azken albisteekin; ekarpenen sintesia; oinarri bibliografikoaren zabalkuntza eta hobekuntza, gaiari buruzko aipamenekin; hainbat eratako informazio-materialak sortzea (taula eta lauki estatistikoak, mapak, etab.).
- Harremanak ezartzea ondoren aipatzen diren gaietan espezializatuta dauden gizarte-erakunde, unibertsitate-sail eta ikerketa-zentroekin: ekonomia globala; munduko eta eskualde-mailako egoera energetikoak (Latinoamerikako eta espanyiar estatuko egoerak); lankidetza eta garapena; Latinoamerika eta Enpresa Transnazionalak.
- Hilero analisi-artikulu bat eta bi hilean behin buletin bat argitaratzea espanyiar estatuko Enpresa Transnazionalei buruz, EAEko 100 gizarte-erakunderentzat, 2.200 gizarte-eragile globalentzat eta webguneak hilean dituen 8.000 erabiltzaileentzat.
- Urtean 8 artikulu argitaratzea gutxienez prentsa idatzi espezializatuan (lehentasuna izango du UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolaren *Lan Harremanak* aldizkariak eta Bakea eta Duintasuna erakundearen *Pueblos* aldizkariak).

Epea: 12 hilabete, urtez urte luza daitekeena.

Hedapena: Unibertsitateko langile eta ikasleen artean batik bat (Hegoa Institutuaren eta UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolaren bitartez, bereziki). Bigarrenik, Euskal Herriko, estatuko eta Latinoamerikako gizarte-erakundeen eta sindikatuen artean.

Tokia: Bakea eta Duintasuna erakundearen Bilboko bulegoa (Zabalbide kalea, 19. solairuartea B).

- Ikerketa-lan bat egitea Latinoamerikan diharduten enpresa transnazionalek ingurumen-iraunkortasunaren eta genero-berdintasunaren ikuspegitik duten erronkari buruz. Hiru kasu-azterlan izango ditu ikerketa horrek: El Salvador, Bolivia eta Kolonbia.*



Deskribapena:

- 2 ikertzaile arituko dira lan honetan, Bakea eta Duintasuna erakundeak finantzatuta. Erakunde horren bulegoan egingo dute lan, eta zeregin hauez arduratuko dira:
1. Gaiari buruzko azterlanen eta informazio estatistikoaren bilaketa dokumentala.
  2. Hedabideen eguneroko jarraipena.
  3. Hartu-emanak eta elkarritzak EAEko, espanyiar estatuko eta Latinoamerikako sindikatu, enpresa-erakunde eta gizarte-erakundeenkin.
  4. Multinazionalen komunikazio-politiken eta komunikazio-proiektuen jarraipena, beren diseinu korporatiboan emakumearen irudia nola erabiltzen duten aztertzeko. Gainera, eraginen analisi berezitua egingo da, emakumeengana eta gizonengana.
  5. Ikerkuntzarako landa-lana, Euskadin eta Latinoamerikan. Koordinazioa Hegoaldeko herrialdeetako erakunde laguntzaileekin.
  6. Bildutako materialekin, hainbat prestakuntza- eta sentsibilizazio-baliabide sortzea: urtean liburu bat, euskaraz eta gaztelaniaz; triptikoak, artikuluak, etab.
  7. UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolak bere ekarprena egiten jarraituko du: irakasleen azterlan espezializatuak eta baimenak ikasleei azterlanak egiteko (OMAL behatokian egin ahal izango dituzte praktikak).

Epea: Ikerketa-prozesua 2013ko urtarrilean hasi eta 2013ko abenduan amaituko da, eta luzatu ahal izango da, urtez urte. Ikerketa-prozesu osoak honako fase hauak izango ditu:

Prestakuntza-fasea

- Aldaketak diseinu metodologikoan,
- Ustiapen-proposamena, dokumentuak lantzea eta hedapena, eta
- Aurretik egin beharreko beste lan batzuk.

Jarduera gauzatzea

- Landa-lana: 6 hilabetez Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak onartutako datatik aurrera (uztailaren hasierako data, ahal izanez gero);
- Lehenengo emaitzak aurreratzea: landa-lana amaitu eta 3 hilabetera, eta
- Txosten orokorra eta partzialak entregatzea: lehenengo emaitzak aurreratu eta 3 hilabetera, onartutako ustiapen-planaren eta idatzi beharreko txostenen arabera.

Hedapena: Gizartean oro har, eta unibertsitate-eremuan bereziki.

Tokia: Bakea eta Duintasuna erakundearen Bilboko bulegoa (Zabalbide kalea, 19. solairuartea B).

3. **Dokumental bat egitea, DVD formatuan, euskaraz eta gaztelaniaz, hedabideek botere korporatiboaren tresna gisa duten zereginaz aztertuko duena: "Errealitatea ala fikzioa: enpresa transnacionalak, gizarte-erantzukizun korporatiboa eta hedabideak."**

Deskribapena: DVDAk 1.000 unitateko tirada izango du, aztertutako gaiari buruzko informazio espezializatuarekin, eta Unibertsitateko irakasle eta ikasleen eta gizarte-mugimenduetako kideen artean banatuko da; bereziki, Hegoa Institutuko ikasleen eta erakunde horretako ikertzaileen artean. Honela banatuko da: % 10, UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskola; % 90, Bakea eta Duintasuna erakundea.



Epea: 2013ko apiriletik abendura bitartean. Fase hauek izango ditu:

Prestakuntza-fasea

- Diseinu metodologikoa eta lan-plana proposatzea.
- Gidoia, gida-lerroak eta edukiak.
- Kronograma eta kontaktuen zerrenda.
- Aurretik egin beharreko beste lan batzuk.

Jarduera gauzatzea

- Elkarrizketak eta irudien grabaketa, 2013ko martxotik apirilera bitartean.
- Edizioa: 2013ko maiatzetik ekainera bitartean.
- Banaketa: 2013ko ekainetik abendura bitartean.

Hedapena: Gizartean oro har (gizarte zibileko 30 erakunde), eta unibertsitate-eremuan bereziki. Banaketa materiala entregatu eta 7 egunera hasiko da, eta ikerketaren indarraldian zehar luzatuko da.

Tokia: UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako instalazioak eta Bakea eta Duintasuna erakundearen Bilboko bulegoa (Zabalbide kalea, 19. solairuarteoa B).

**4. Koaderno bat argitaratzea Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan, UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolarekin elkarlanean, ikerketarako bereziki interesgarriak diren gaiak landuko dituena.**

Deskribapena: Ikerketaren emaitzetatik abiatuta, 750 aleko tirada izango duen koaderno bat argitaratuko da, 90 orrialdekoa gutxi gorabehera, aztertutako gaiari buruzko informazioa espezializatuarekin, eta unibertsitateko irakasle eta ikasleen eta gizarte-mugimenduetako kideen artean banatuko da; bereziki, Hegoa Institutuko ikasleen eta erakunde horretako ikertzaileen artean. Honela banatuko dira aleak: % 10, UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskola; % 90, Bakea eta Duintasuna erakundea.

Epea: 2013ko irailetik abendura bitartean. Prozesu osoak fase hauek izango ditu:

Prestakuntza-fasea

- Aldaketak diseinu metodologikoan,
- Lan-plana proposatzea, eta
- Aurretik egin beharreko beste lan batzuk.

Jarduera gauzatzea

- Idazketa eta edizioa: 2013ko iraila.
- Maketazioa: 2013ko azaroa.
- Inprimategiari entregatzea eta banatzea; akatsak zuzentzea: 2013ko irailetik abendura bitartean.

Hedapena: Gizartean oro har (gizarte zibileko 30 erakunde), eta unibertsitate-eremuan bereziki. Banaketa materiala entregatu eta 7 egunera hasiko da, eta ikerketaren indarraldian zehar luzatuko da.

Tokia: UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako instalazioak eta Bakea eta



Duintasuna erakundearen Bilboko bulegoa (Zabalbide kalea, 19. solairuartea B).

**5 MINTEGI ESPEZIALIZATUA egitea Euskadin, EHU-Hegoarekin lankidetzan, empresa multinazionalek Milurtekoko Garapen Helburuei loturik Latinoamerikan duten egitekoari buruz.**

Deskribapena: UPV/EHUREn Bilboko instalazioetan egingo da, hainbat egunetan. "Empresa transnazionalak, ingurumen-iraunkortasunaren eta genero-berdintasunaren erronken aurrean, Latinoamerikan: El Salvador, Bolivia eta Kolonbiako hiru kasuren azterketa" gaia izango da mintegiaren ardatza, eta Espainiako estatuko eta Latinoamerikako adituak bilduko ditu. Bakea eta Duintasuna Elkartearekin (Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren finantzaketa du), Hegoa Institutuarekin eta UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolarekin lankidetzan antolatuko da. Latinoamerikako gizarte-erakundeetako hizlari adituak ekarriko dira, eta txosten batean bildu eta argitaratuko da jardunaldien laburpena.

Epea: Ikastaroa 2013ko maiatza eta azaroa artean prestatuko da.

Hedapena: GGKEetako eta gizarte-mugimenduetako profesionalei, erakunde politikoetako eta sindikatueta militanteei, kazetariei eta unibertsitateko ikasleei begira antolatutako ikastaroa da, batik bat. Ikastaroa amaitutakoan, UPV/EHUko lehen eta bigarren zikloen eta graduoko irakaskuntzen kudeaketa-araudiaren arabera dagozkien kredituak aitortuko zaizkie bete beharreko baldintzak betetzen dituzten unibertsitate-ikasleei. Ikastaroa amaitzean, egiaztagiria emango da.

Tokia: Bilboko Alde Zaharreko UPV/EHUREn Esperientzia Geletan.

**6. Urte osoko mintegi espezializatua egitea Hegoa Institutuan, Nazioarteko Garapena eta Lankidetza unibertsitateko master ofizialaren baitan.**

Deskribapena: Mintegi espezializatu bat egingo da, aztertzeko globalizazio prozesuak nola eragiten dien Hegoaldeko herrialdeetako eskubide ekonomikoei, sozialei, politikoei, ingurumenekoei, lan arlokoei eta kulturalei. Hiru orduko saio bat egingo da. Saio horretan, Latinoamerikako ikergune edo erakunde bateko aditu batek eta Latinoamerikan ari diren Multinazionalen Behatokiko kide batek parte hartuko dute. UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolaren, Hegoa Institutuaren eta Bakea eta Duintasuna Elkartearen arteko lankidetzan antolatuko da, eta FOCAD 2011 proiektuetarako laguntzen deialdian Lankidetzaren Euskal Agentziak onartutako proiektuaren bidez finantzatuko da. Hegoa Institutuko master ofizialako ikasleek eta beste unibertsitate-ikasketa batzuetako ikasleek parte hartuko dute ekimenean. Aurrez egin diren era honetako ekimenetako partaidetza oinarri hartuta, ekimenak 35-40 ikasle erakarriko dituela aurreikusi da.

Epea: Mintegia 2013ko urtarriletik abendura egingo da.

Hedapena: Batik bat honako ikastegi hauetako ikasleei begira antolatutako mintegia da:

▲ Lan Harremanen Unibertsitate Eskola (Leioa)



- ▲ Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea (Leioa)
- ▲ Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (Sarriko, Bilbo)

Eta honako graduondoko hauetako ikasleei begira:

- ▲ Globalizazioa eta Garapena unibertsitate-master ofiziala (Sarriko, Bilbo).
- ▲ Nazioarteko Garapena eta Lankidetza unibertsitate-master ofiziala (Sarriko, Bilbo).
- ▲ Migrazioak: Migrazio-prozesuen jakintza eta gestioa (unibertsitate-masterra)
- ▲ Nazioarteko Ikasketak (Unibertsitate Masterra eta Doktoregoa) (KA)
- ▲ Globalizazioa eta Garapena (Doktoregoa)
- ▲ Partaidetza eta Komunitate Garapena (unibertsitate-masterra)
- ▲ Garapenerako Lankidetzarako Estrategiak, Eragileak eta Politikak (on line) (titulu propioa)
- ▲ Immigrazioa eta Garapenerako Lankidetza, Europar Batasunean (on line) (titulu propioa)

Publiko orokorra, eta Latinoamerikarekin elkartasun-lanetan dabiltzan gizarte-mugimenduetako eta GGKEetako ordezkariek.

Tokia: UPV/EHUREn instalazioetan, zehazki, Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean.

#### *7. Proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa*

Jarraipenak proiektua zuen garatzeko logistika- eta koordinazio-lan guztiak hartzen ditu barne: kotizazioak egitea, ekitaldiak prestatzea, bilerak eta agenda antolatzea; horrez gain, proiektuaren jarraipen ekonomikoa eta txostenak egin beharko dira.

Jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez, 3 une hartuko dira kontuan:

- Hasierako ebaluazioa (proiektuaren onespina berresten den unean egingo da, eta orain arteko lana eta proiektu honetan planteatutako erronka berriak uztartzeko baliagarria izango da).
- Prozesuaren ebaluazioa.
- Amaierako ebaluazioa (telematikoa eta aurrez aurreko): proiektua ebaluatzenko amaierako tailer bat prestatu da, honako kide hauek bilduko dituena: UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako teknikarien eta aholkularien taldea, Hegoa Institutua eta Hegozeldeko GGKEak. Tailer horren helburua egindako lana aztertzea eta proposamen berriak egitea izango da.

Ebaluazio-jarduerak Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako UPV/EHUREn instalazioetan eta Bakea eta Duintasunaren Bilboko bulegoetan (Zabalbide kalea, 19. Solairuartea, B) egingo dira.

#### **HIRUGARRENA.- Aldeen ekarpenak eta konpromisoak.**

Bakea eta Duintasuna Elkartea bere gain hartuko du hitzarmen honen baitako gainerako ekintzen kostua. Horretarako, FOCAD 2011 deialdian Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako dirua erabiliko da.



Hitzarmena sinatzen duten aldeek honako konpromiso hauek hartzen dituzte beren gain:

1. UPV/EHUK:

- Bere jabetzako txostenetarako, ikerketetarako eta funts dokumentaletarako sarbidea erraztuko du, ekimenaren helburuak betetzen laguntzeko.
- UPV/EHUK Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako ikasleen ikerketak eta praktikak sistematzikoki laguntzeko eta gidatzeko bitartekoak ezarriko ditu.
- Irakaskuntza eta ikerketarako erabiltzen ez diren instalazioak utziko ditu, bereziki UPV/EHUK Lan Harremanen Unibertsitate Eskolakoak, lanak eraginkortasunez eta segurtasunez egin daitezen. Hala ere, jarduera gehienak Bilboko Bakea eta Duintasuna Elkartearen instalazioetan garatuko eta koordinatuko dira.
- UPV/EHUK Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako ikasleen praktikak aitortuko ditu, UPV/EHUn indarrean dagoen araudiaren arabera, betiere.
- OMALek sortutako ikerketak eta informazioak hedatuko ditu, webgunearen bidez.

2. Bakea eta Duintasuna Elkarteak:

- Bilbon dituen instalazioak utziko ditu, hitzarmen honetan jasotako ikerketa-, jarraipen- eta ebaluazio-jarduerak egiteko. Horrez gain, hitzarmenaren zerbitzura jarriko ditu Espaniako gainerako bulegoen ahalmenak ere.
- Ikerketen edukiak [www.omal.info](http://www.omal.info) webgunean eskuragarri jarriko ditu. Webgune horrek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiliko ditu.
- Bakea eta Duintasuna Elkarteak lan-metodologia eta UPV/EHUK emandako informazioa erabiltzeko langile egokiak eskainiko ditu. Horrez gain, bere jabetzako txostenetarako, ikerketetarako, dokumentu-funtsetarako eta eragiketa estatistikoetarako sarbidea erraztuko du, helburuak betetzen laguntzeko.

Bai UPV/EHUK eta bai Bakea eta Duintasuna Elkarteak konpromisoa hartzen dute OMALen bidez eskuratutako emaitzak unibertsitate-campusetan hedapenerako erabili ohi diren formatuetara egokitzeko.

### LAUGARRENA.- Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea

Hitzarmen honen esparruan, jarraipen-batzorde bat eratuko da. Batzordearen helburua izango da baterako jarraipena egitea eta aldeen ekintzak koordinatzea, bakoitzari dagozkion eskumenen eta funtzioen esparruan, hitzarmen honetan jasotako betebeharrok eta helburu orokorrak betetze aldera.

Jarraipen Batzordeak honako eginkizun hauek izango ditu:

- Behatokiaren jarduera-ildoak zehaztea.
- Garatu beharreko jarduerak kudeatzeko plana onartzea.
- Aurrekontu-proposamenak onartzea.
- Jendaurrean zer informazio zabalduko den onartzea.
- UPV/EHUi eta Bakea eta Duintasuna Elkarteari OMALen azterketetatik eratorritako proposamenen eta ondorioen berri ematea, unibertsitate-jardueran aintzat har ditzaten.
- Hitzarmen hau interpretatzea eta hura garatzean sortzen diren zalantza guztiak argitzea.
- Hitzarmena isilbidez luzatuz gero, urte bakoitzean gauzatzeko jarduerak proposatzea,





hitzarmen honetako klausuletan agertzen denaren moduko zehaztapen-mailarekin.

Jarraipen Batzordeak osaera paritarioa izango du. Lau kidek osatuko dute: lehendakariak, idazkariak eta bi batzordekidek.

- Lehendakaria UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako zuzendaria izango da.
- Idazkaria Bakea eta Duintasuna Elkarteko lehendakaria edo hark eskuordetutako kide bat izango da.
- Bi batzordekideetako bat UPV/EHUko izango da, eta UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako zuzendariak izendatuko du.
- Beste batzordekidea Bakea eta Duintasuna Elkartekoa izango da, eta elkarre horretako lehendakariak izendatuko du.

Batzordea urtean bitan bilduko da, gutxienez. Horrez gain, aldeetako batek lehendakariari idatziz eskatzen dion orotan ere elkartuko da (eskaria egiten duenak eskariaren arrazoia adierazi beharko du idatzian).

Jarraipen Batzordearen araubide juridikoa azaoren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak kide anitzeko organoei buruz ezarritako arauetegi egokituko zaie, eta haren administrazio-berezitasunak Batzordeak berak finkatuko ditu.

### **BOSGARRENA.- Lanen garapenaz arduratuko den erakundea.**

Bakea eta Duintasuna Elkartea arduratuko da hitzarmen honen bigarren klausulan zehaztutako jardueren garapenaz eta horietatik erorritako informazioa hedatzeko onartutako egokitzapenez.

Horretarako, hiru ikertzailek eta koordinatzaile batek osatutako lan-talde bat eratuko da. Talde horrek Elkartea Euskadin dituen bulegoetan lan egingo du. Latinoamerikan ari diren Multinacionalen Behatokian sei urte baino gehiagoko ikerketa-esperimentzia eta nazioarteko kolaboratzaile-sarea izango ditu oinarri.

Gainera, hitzarmen honetan adierazitako jarduerak lotura dutenez Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatutako “*Enpresa transnacionalak, ingurumen-iraunkortasunaren eta genero-berdintasunaren erronken aurrean, Latinoamerikan: El Salvador, Bolivia eta Kolonbiako hiru kasuren azterketa*” sentsibilizazio-proiektuarekin (PRO 2011 K3/0026), bermatuta daude jarduerak gauzatzeko beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak.

### **SEIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena.-**

Hitzarmen hau aldeek sinatzen duten unean sartuko da indarrean, eta 2013ko jarduera guztiak barne hartuko ditu, baita hitzarmena sinatu aurrekoak ere. Hitzarmena 2013ko abenduaren 31n iraungiko da, baina isilbidez luzatu ahalko da urtebeteko beste bi alditarako, baldin eta aldeetako batek denuntziatzen ez badu, iraungitze-data baino hilabete lehenago, gutxienez.



## ZAZPIGARRENA.- Alde bakoitzaren berariazko erreserbak.-


Aurreko klausuletan jasotakoez gainera, honako erreserba hauek zehazten dira alderdi bakoitzaren alde:

- Akordio honen barruan garatzen diren baterako jardueretik eratorritako informazio guztia bi aldeen esku egongo da; betiere, bestelako araurik zehazten ez bada.
- Egindako lanen jabetza Bakea eta Duintasuna Elkartearena eta UPV/EHUrena izango da.
- Bakea eta Duintasuna Elkarteak eskaintzen duen informazioa lortzeko, ustiatzeko, ebaluatzeako eta hedatzeko aplikatutako metodologiaren titularra elkarrekin bera izango da. UPV/EHUk eskumena izango du lankidetza honen bidez eskuratutako datuak eta emaitzak erabiltzeko. Datu horiek zabaltzeko, iturria eta titulartasuna aipatu beharko dira beti.


## ZORTZIGARRENA.- Ez-betetzeak

Bi aldeetako batek dagozkion konpromisoak bete ezean, beste aldeak eskumena izango du konpromiso horiek zorrotz betetzeko edo hitzarmena deuseztatzeko eskaria egiteko.

Lankidetza zentzurik zabalean ulertuta, eta hitzarmen honetan zehaztutakoarekin ados daudela adierazteko, bi aldeek bi kopia sinatzen dituzte, goiburuan zehaztutako lekuan eta orduan.



IÑAKI GORIZELAIA ORDÓÑEZ  
jn.  
EHUko errektorea  
Rector de la UPV/EHU



EUGENIO PASCUAL CORUÑA jn.  
Bakea eta Duintasuna Elkartasuneko lehendakaria  
Presidente de la Asociación Paz con Dignidad



## **CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO-EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA Y LA ASOCIACIÓN PAZ CON DIGNIDAD PARA EL DESARROLLO DEL OBSERVATORIO DE LAS MULTINACIONALES EN AMÉRICA LATINA.**

En Leioa, a 17 de abril de 2013.-

### **REUNIDOS**

De una parte, el Exmo. SR. D. **IÑAKI GOIRIZELAIA ORDORIKA**, Rector Magnífico de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, como representante de esta institución y en virtud de las competencias que le otorgan los Estatutos de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (en adelante UPV/EHU) aprobados por Decreto 322/2003, de 23 de diciembre (BOPV 12-01-2004), con CIF Q-4818001B y sede en la ciudad de Leioa

De otra parte, Sr. D. **EUGENIO PASCUAL CORUÑA** en nombre y representación de la Asociación Paz con Dignidad, con domicilio en Euskadi en la calle Zabalbide, nº19, Entreplanta B de Bilbao; con NIF G-81375479, con poderes suficientes para la celebración de este acto.

Intervienen en nombre y representación de las entidades que presiden y actúan con las facultades que sus respectivos cargos les confieren, reconociéndose recíprocamente la capacidad y legitimación suficientes para otorgar y firmar el presente Convenio,

### **EXPONEN**

La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (a partir de ahora UPV/EHU) está sensibilizada y comprometida con la obligación de atender a las necesidades sociales, económicas y culturales del entorno en el que presta el servicio público de enseñanza superior y manifiesta su intención de desarrollar acciones específicas en el ámbito de la formación y la información sobre diferentes fenómenos globales que tiene impactos locales sobre nuestra realidad económica y social.

A su vez, la Asociación Paz con Dignidad y el Observatorio de las Multinacionales en América Latina (a partir de ahora OMAL), desde su compromiso social, están implicados en conocer el impacto del comportamiento de las multinacionales vascas en América Latina a través de sus principales variables, así como las características de los flujos de entrada y relación del sistema educativo al sistema productivo. Al objeto de que este conocimiento le permita emitir propuestas para la adaptación y definición de acciones específicas para promover la investigación, la sensibilización, la formación y la concienciación de la sociedad vasca y latinoamericana sobre la influencia del desempeño de las multinacionales de ámbito estatal en el desarrollo económico, social de los países de América Latina y cómo esto se traduce en oportunidades y amenazas para el cumplimiento de los Objetivos de Desarrollo del Milenio en este continente.

Las profundas modificaciones de los sistemas económicos como consecuencia de los procesos de globalización, la incertidumbre en la evolución y tendencias de las economías, los cambios en los procesos de trabajo, en el contenido de los empleos, las cada vez mayores interrelaciones



